

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

2026ko OTSAILAREN 2a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita seigarren urtean, otsailaren bian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2026ko urtarrilaren 28an afixatua izan zen eta 2026ko urtarrilaren 28an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	14	
Bozkatzaileak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Pierre *Betti* jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

Ahalordea(k): BIBES Jean Paul jaunak ahalordea emana zion DUPUY Maddalen andereari

Falta zirenak:

Bilkurako idazkaria izendatu da: MOUSQUES Bernadette anderea

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- Herriko prezio finkoaren zuzenketa-bozketa (eskola pribatuak)
- Izpurako herriak eskola publikoko funtzionamendu gastuetan parte hartzea
- Kanpalekuko prezio berriak
- Euskal Elkargoak laguntza funts bat ematea onartzea
- Jean Pujo Kolegiorako kirol ekipamenduak erabiltzeko hitzarmenari gehigarria
- Mailuxenea etxearen erostea
- Zubien programa nazionalari dirulaguntza galdatzea Eiheraldeko zubirako
- Bide bazterreko belarra mozteko tresna
- 206-2030 estatutu asurantzari kidetzea
- Gai orotarik

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2026ko urtarrilaren 19ko bilkuraren bilduma onartu du.

1-2026-06 DELIBEROA – ESKOLA PRIBATUENDAKO HERRIKO PREZIO FINKOAREN ZUZENKETA-BOZKETA – 7.10 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 2025eko abenduaren 11ko delibero bidez, Donostei eskolaren eta Baigorriko Ama Ikastolaren funtzionamendu-gastuetarako Herriko Etxearen parte hartzea horrela finkatu zela:

- Donostei eskola: 33 159.59 €

- Baigorriko Ama Ikastola :37 681.35 €

2014ko maiatzaren 2ko prefetura-zirkularrak zehazten ditu prezio finkoa finkatzeko kontuan hartzen diren gastuak. Alta, huts bat bazen kalkuluan eta jaun auzapezak proposatu du, taula batzuetan bermatuz, parte hartze horien zenbatekoa berrikustea.

Proposatu du:

- Donostei eskola: 40 248.79 €
- Baigorriko Ama Ikastola : 49 608.98 €

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ONTZAT eman ditu herriko prezio finko berri horiek

ZEHAZTU du herriko prezio finkoa **936.02 €-koa** dela ikasle bakoitz

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 14
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOAK: /

6-2024-07. DELIBEROA - IZPURAKO HERRIAK ESKOLA PUBLIKOKO FUNTZIONAMENDU GASTUETAN PARTE HARTZEA 2025-2026 IKASTURTERAKO – 8.1 NOMENKLATURA

Auzapezak herriko Kontseiluari jakinarazi dio 2026ko otsailaren 2ko deliberaren bidez Herriko Etxearen parte hartze finkoa 936,02 €-tan finkatu zela ikasle bakoitz.

Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Izpuran bizi den ikasle batek Baigorriko eskola publikoan izena emana duela.

Egoera hori zehazki esplikatzen du, eta Kontseiluari galdatu dio 936,02 €-ko parte hartze finkoari doakion agiri baten aurkeztea Izpurako Herriko Etxeari.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,

ERABAKI du 2025-24026 ikasturterako 936,02 €-ko prezioa aplikatzea haur bakoitz, Izpurako Herriko Etxeak ordaindu behar duena lehen maila publikoko funtzionamendu kargetan parte hartzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
 Hor ziren kideen kopurua: 14
 Bozkatu dutenen kopurua: 15
 ALDE: 15
 KONTRA: /
 ABSTENTZIOAK: /

2- 2026-08 DELIBEROA - HERRI KANPALEKUKO PREZIOEN ALDAKETA – 7.10 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 2024ko urtarrilaren 23ko delibero bidez herriko kanpalekuko prezioak berrikusi zirela.

Egun, nahi luke helduen prezioa goratu dezaten, hots, **6.50€-koa izan dadin.**

Helduak	6.50 €
7 urtez peko haurrak	2.40 €
Pertsona bat gehiago 18 urte arte	4.20 €
Autoa	3.60 €
Motoa	3.00 €
Elektrika lotura	3.60 €
Egokigailu elektrikoaren erostea	19.00 €
Egokigailu elektrikoaren alokatzea	1.50 €
Jantzi-garbigailurako txanpona	4.80 €
Dutxa (kanpalekutik kanpoko pertsonentzat)	3.00 €
Aparkatzea/gaueko	4.80 €
Zakurra	1.50 €
Edariak	2.50 €
Izozkiak	1.50 € /2.50 €
Kafea, dutea, infusioak	1.00 €
Egonaldi zerga	0.29 €
Ur zikinak husteko eta betetzeko prezio finkoa	2.00 €
2 heldu + ibilgailua + elektrika (egonaldi zerga gabe): prezio finkoa	18.00€
2 heldu + ibilgailua (egonaldi zerga gabe): prezio finkoa	14.40€

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ONARTU du herri kanpalekuko prezioak gorago aipatuaren arabera finkatzea 2026ko martxoaren 1etik goiti.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
Bozketan parte hartu ez duten pertsonak:
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

5-2025-9. DELIBEROA - EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK LAGUNTZA FUNTS BAT EMATEA ONARTZEA - ESLEITZE HITZARMENAREN IZENPETZEA – 7.5. NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio 2025eko agorrilaren 26ko delibero bidez, Herriko Etxeak 2023-2026-ko laguntza funtsaren gainerakoa galdegin zuela, hots, 7 556.80 €.

Jaun auzapezak oroitarazi du laguntza funtsen esleitzeko araudiaren arabera, Euskal Elkargoak kide dituen herriei laguntza funts baten esleitzeko hitzarmen bat egin behar dela Euskal Elkargoaren eta hartzaile den herriaren artean.

Beraz, proposatu du esleipen-hitzarmen horren izenpetzea.

2026ko OTSAILAREN 2ko bilduma

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

BAIMENA eman dio jaun auzapezari **7 556.80 €-ko** laguntza funtsaren esleipen hitzarmen horren izenpetzeko

ARDURA eman dio jaun auzapezari urrats guzien betetzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
Bozketan parte hartu ez duten pertsonak:
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

5- 2026-10. DELIBEROA - JEAN PUJO KOLEGIORAKO KIROL EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO HITZARMENARI GEHIGARRIA – 8.2 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio kolegio publikoek kirol ekipamenduak erabiltzeko hitzarmen oinarri emaila, 2020-2026 denboraldiko izenpetua, 2028ko buruilaren 1era luzatu dela.

Jaun auzapezak proposatu du hitzarmen horren gehigarria izenpetzea, 9.1 artikuluan aipatu epea aldatzen duena (6 urtetik 8 utera).

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

BAIMENA eman dio jaun auzapezari kirol ekipamenduen erabiltzeko hitzarmenari egin gehigarriaren izenpetzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
Bozketan parte hartu ez duten pertsonak:
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

6- 2026-11. DELIBEROA - MAILUXENEA ETXEAREN EROSTEA – 3.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio Agoten bideko 55.ean kokatua den eraikina, AD 0042 saila, saldu dela higiezinaren baitze auzialdian.

Lote hori ESPIET jaunari esleitu zaio 85 000 €-ko zenbatekoaren truke, baita ere 6 640.79 € zerga-gastuen truke.

Euskal Hirigune Elkargoak lehentasunez erosteko eskubidea jaun auzapezaren esku utzi du, eta horretarako, jaun auzapezak eskubide hori baliatu du eraikin horren eskuratzeko, 85 000€-ren truke.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ONTZAT eman du Mailuxenea etxearen erostea 85 000€-ren truke, baita zerg-gastuak 66 40.79 €-ren truke.

ARDURA eman dio jaun auzapezari urrats guzien betetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15

2026ko OTSAILAREN 2ko bilduma

Bozketan parte hartu ez duten pertsonak:
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

7-2026-12 DELIBEROA - BIDE BAZTERREKO BELARRA MOZTEKO TRESNA EROSTEA – 1.4 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 2015ean Herriko Etxeak belarra mozteko traktore bat erosi zuela.

Orain tresna horren ordezkatzeari beharrezkoa da. Jaun auzapezak aurrekontu batzuk aurkeztu ditu.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ONTZAT eman du BERETERBIDE enpresaren aurrekontua: 35 500€ BEZa gabe, hots, 42 600 € BEZa barne.

ZEHAZTU du enpresak material zaharra berriz hartuko duela 10 500 €-ren truke.

ONTZAT eman du materiala berriz har dezan 10 500 €-ren truke

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
Bozketan parte hartu ez duten pertsonak:
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK: /

8-2026-13. DELIBEROA – KONPONKETAK 2. ARTE EGITURAN – DIRULAGUNTZA GALDEA. 7.5 NOMENKLATURA

Gai horri berari buruzko (akats materiala, kalkulu aldaketa) 2025eko abenduaren 11ko 66. deliberoa ezeztatzen du eta ordezkutzen.

Auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio 2025ean egin ikuskaritza zehatzak erakutsi zuela obrak egin behar direla 2. arte-egituran eta zaharberritze proiektua aurkeztu du.

Gehitu du dirulaguntza dosierra apailatu dela eta operazioaren gastu orokorra **328 714,80 €**-tan (BEZa gabe) estimatu dela.

Orain Estatuari, Departamenduari eta beste partaide instituzional orori dei egin behar zaie operazio mota horretarako dirulaguntzak galdegiteko.

Kontseiluak, dosierrari so egin ondoan, auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan, eta luzaz deliberatu ondoan,

- **DELIBERATU du** proiektua eta aurreikusi finantzamendua onartzea (ikus beherago)

Estatuari, Departamenduari eta beste partaide instituzional orori dei egitea operazio mota horretarako dirulaguntzak galdegiteko.

ZEHAZTU du operazio horren finantzamendua funts librean egin daitekeela osagarri gisa.

2026ko OTSAILAREN 2ko bilduma

GASTU MOTAK Zuzenean proiektuari lotuak	Gastuen zenbatekoa (BEZa gabe)	IRABAZIAK	Zenbatekoa	Zehaztu galdatu ala ukan den Eskurat ua	%
Hautagarri diren lur-funts eskuratzea		Laguntza publikoak			
		Estatua (beherago zehaztekoa):			
Lur-funts eskuratzeen subtotala	0,00€	TISE (273 600+22 506)*% 20	59221,20€	galdatua	20,00 %
1-Aitzinetikako ikerketak		PNP (328 714,80*% 60)	197228,88€	Galdatuko da	60,00 %
Ikerketak: LURO aitzin-proiektu urratsa	6310,00€				
Administrazio eta teknika laguntza SIVRA TKAP	3708,00 €				
Orotariko ordainsariak		Eskualdeko Kontseilua			
Bilketa topografikoa	2000,00 €	Departamendu Kontseilua			
Ikerketa geoteknikoak	2000,00 €	Beste kolektibitateak (laguntza funtsak,...) 3) ³			
Ikerketen/Ordainsarien subtotala	14018,00€,				
II-Obrak ¹		Europar funtsak			
Egituren berritzeko obrak	247600,00€	Beste laguntza publikoak			
Irazgaiztasun obrak	26000,00€	-			
		Laguntza publikoen subtotala	256450,08€		
		Publikoak ez diren beste laguntzak			
		zehaztekoa			
		Subtotala:	0,00€		
		AUTOFINANZAMENDUA			
		Diru propioa	72264,72 €		
Obren subtotala	273600,00 €	Maileguak			
III-Lotu gastuak		finantziazio errentamendua			
LURO ikerketa, obren fasea	8780,00€				
Obragintza laguntza SIVRA TKAP (obren fasea)	3708,00€				
Beste gastuen subtotala	12488,00€	Subtotala:	72 264,72 €		
IV-ALEAS		OROTARA	328 714,80 €		
ALEAS	28608,80€				
% 10 II+ III					
OROTARA ⁴	328 714,80 €				

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15

Bozketan parte hartu ez duten pertsonak:

ALDE: 15

KONTRA: /

ABSTENTZIOAK: /

9-2026-14. DELIBEROA - 206-2030 ESTATUTU ASURANTZARI KIDETZEA – 4.1 **Nomenklatura**

Jaun auzapezak biltzarrari oroitarazi dio elkargo publikoek estatutu-betebeharrak dituztela CNRACLren kide diren haien funtzionarioen eta Gizarte Asurantzako araubidearen mendearen diren langileen geriza sozialari begira.

Arrisku horien kontrako bermea hartzeko, elkargoek asurantza kontratu bat har dezakete.

Kudeaketa zentroak konkurrentziarako deialdia egin du arriskuak batzen dituen talde kontratu baten ukaiteko.

Kudeaketa zentroak, Eskaera Publikoaren Kodearen araberrako prozedura plantan ezarri ondoan, CNP Asurantza hartzea erabaki du asurantza etxe gisa eta **RELYENS** kudeatzaile artekari gisa.

Bi kontratu proposatu dira:

- **CNRACLren mendearen diren funtzionarioei** doakien kontratua:

Asurantza tasa % **7,40koa** da eta **berme guziak** barne ditu:

Heriotza + Zerbitzu istripua eta eritasun profesionala (CITIS) + Eritasun luzea eta iraupen luzekoa + Amatasuna-Adopzioa-Aitatasuna eta haurraren errezibitza + Eritasun arrunta 15 eguneko frankiziarekin lan geldialdi bakoitz + Gerla elbarritasuna

Langileei ordaindu eguneroko ordainsarien ordainketa-maila % **90ekoa** izanen da.

- **Gizarte Segurantzako** araubideak eta **IRCANTECek** estali **langileendako** kontratua:

Asurantza tasa % **0,96-koa** da eta **berme guziak** barne ditu:

Lan istripua eta eritasun profesionala + Eritasun larria + Amatasuna-Adopzioa-Aitatasuna eta haurraren errezibitza + Eritasun arrunta 15 eguneko frankiziarekin lan geldialdi bakoitz eritasun arruntaren kasuan bakarrik

Langileei ordaindu eguneroko ordainsarien ordainketa-maila % 100ekoa izanen da.

Bi kasuetan, kapitalizazio kontratuak dira (aseguratzaileak kalte-ordaina ematen segitzen du kontratua bururatu ondotik ere, kontratu denboran gertatu kalteetarako).

Aseguru-oinarria elkargoak du zehazten.

Urteko indize gordinaren tratamenduaz eta indize hobekuntza berriaz (nahitaezko elementua) osatua da, eta hautuan:

- o Familia tratamendu gehigarriaz

- o Enplegatzaile karga guziez edo parte batez, elkargoak zor dituen kargen mugan

- o Funtzio, menpekotasun eta balioztatze ordainsariak finkatu RIFSEEP erregimenaz eta urteko ordainsari gehigarriez (FMBO eta UOG)

Kontratu berriek **5 urteko** iraupena dute (**2026ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra arte**), eta **tasak mantenduko dira lehen 3 urteetan**.

Elkargoak interesa du mutualizazio desmarta horren integratzeko, kontratuan aurreikusi berme-maila kontuan harturik.

Herriko Kontseiluak, deliberatu ondoan,

2026ko OTSAILAREN 2ko bilduma

ERABAKI du 2026ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra CNPk RELYENS artekariaren bidez eskaintzen dituen asurantzak kontratuei kidezea.

BAIMENA eman

dio Auzapezari dokumentu oro izenpetzea eta horretarako esku hartzea.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
Bozketan parte hartu ez duten pertsonak:
ALDE: 15
KONTRA: /
ABSTENTZIOAK:

10- 2026-15 ERABAKIA: MAILUXENEA ETXEAREN EROSTEA – 3.1 NOMENKLATURA

Gai berari buruzko data bereko deliberoa ezeztatzen eta ordezkatzeko du (huts materiala)

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio Agoten bideko 55.ean kokatua den eraikina, AD 0042 saila, saldu dela higiezinaren baitan auzialdian.

Lote hori ESPIET jaunari esleitu zaio 85 000 €-ko zenbatekoaren truke, baita ere 6 640.79 € zerga-gastuen truke.

Euskal Hirigune Elkargoak lehentasunez erosteko eskubidea jaun auzapezaren esku utzi du, eta horretarako, jaun auzapezak eskubide hori baliatu du eraikin horren eskuratzeko, 85 000€-ren truke.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ONTZAT eman du Mailuxenea etxearen erostea 85 000€-ren truke, baita zerg-gastuak 66 40.79 €-ren truke.

ARDURA eman dio jaun auzapezari urrats guzien betetzeko.

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

/

Gai orotarik

/

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Pierre *Betti* jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

Bilkuran hartu deliberoak 6tik 15era zenbakituak ziren.

<u>Auzapezaren izenpedura:</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izendatzea:</u>